


Musulmanak gaur egungo judutarrak dira



Islamofobia liburutik hautatuak
Santiago Alba Rico
Ed. Icaria, 2015

Jende on eta zentzudunak orain dela bi mende, duela mende bat, edo 70 urte, normal eta moraltzat jotzen zuen, edo justifikatzen zuen, judutarrak jazartzea.



Gaur egun islama eta musulmanak tratatzeko erabiltzen dugun normaltasun eta moraltasunak erne jarri beharko gintuzke inkubatzen ari garen bortxakeria larriaz.



Islamofobia arazo bilakatzen da, hedabide, politikari, eta intelektualentzat Estatu Islamikoa “Mendebaldeko (mundu guztiko) mehatxu nagusi” bihurtzen denean

Israelgo estatua, munduaren bakerako askoz mehatxagarriagoa dena, edo teokrazia saudia, edo AEBetako bonbardaketak, demokraziaren bermatzaile eta fanatismoaren kontrako bastioitzat jotzen diren bitartean.



Arazoa islamofobia da eta ezislama

Jende on eta zentzudunari zuzendu behar gatzazkio ulertzen dituzten adibideak jarritz. Judutarrena bereziki da argigarria.

Orain ehun urte judutarrak jazarriak, umiliatuak, baztertuak ziren European, eta integratzeko egiten zuten esfortzu oro mesprezuz, bazterkeriaz eta bortxaz erantzuten zen.





Hitlerrek beranduago akabatu ahal izan zituen, Europako populazioaren zati handi batek, jende on eta zentzuduna, judutarrak ez zituelako sekula aberkidetzat jo eta beraien sarraskia baimendu edo txalotu zuelako.

Egun judutarrak salbu dira; eta europear ohoragarrien tenplura goratuak izan dira Israelek egindako krimenei esker. Baina ez ditugu ahaztu behar kontzentrazio esparruetan eta gas kameratan amaitu zuten milioikia biktimak.



Nazismoak ez zituen soilik alemaniarrek edo austriarrak edo poloniarrek izan nahi zuten judutarrak sionista bihurtu, eta ez zituen soilik sekula sionista izan ez ziren judutarrak jazarri eta akabatu,

aurrekaririk gabeko zibilizazio iraultza bat eragin zuen, eta judutarrekin batera akabatu zituen ere milaka homosexual, ezkertiar eta liberal.

2015eko urtarrilaren 13ko manifestazioak jende on eta zentzuduna nahastu zuen, Parisen, Europa eta mundua sutan jarri nahi duen jendearekin.



Krimen jihadistien aurrean, jende guztiak du eskubidea besteen ondoan on eta zentzudun sentitzeko.

Jende guztiak **EZ**

Kredentzial ez oso demokratikoa duten agintarien presentziak eta, batez ere, Benjamin Netanyahu lehen ministroarenak, hilabete batzuk lehenagoko 500 haur palestinarren heriotzaren erantzuleak...



... eskubide hori kendu zien, hain justu, islamofobiak berak Charlie Hebdoko atentatuaren erantzule egiten dituen berberei.

Imajina ditzagun frantses musulman horiek guztiak, xantaiapean eta beldurturik edo, besterik gabe, haserre, beren etxeetan zokoratuak, beren ontasuna eta zentzutasuna adierazteko beharrez, beste guztiak bezala.

Paradoxa kuriosoak:
krimenaren kontrako manifestazio
batean gerra kriminal baten
presentziak autokriminalizatzen
behartu zituen «batasun sakratu»
hori berekin partekatu nahi izan ez
zuten horiek.

Momentu hauetan pertsona on eta zentzudunei zuzendu behar gatzaizkie, uler dezaten zer den jokoan dagoena eta kontu handiz arrazoitu dezaten.



Oso erraza da guztia. Koherenteak izan gaitzen gure ontasun eta zentzuduntasunetik datozen printzipioekin.

Estatu Islamikoak adierazpen askatasuna eta demokrazia erasotzen baditu, adierazpen askatasuna eta demokrazia indartu beharko dira. Eska dezagun, bada, adierazpen askatasun gehiago eta demokrazia gehiago.





Ikusten dugu, ordea, proposatzen dituzten neurriak kontrako zentzuan doazela. «Gerra antiterrorista» berriari ultraeskuinak aterako dio errenta.

Hiritarrak babesteaz ari bagara, lehenik eta behin ahulenak babestu beharko dira. Eta ahulenak, dudarik gabe, Europako musulmanak dira, gutxiengo pintzatura presio arrazista eta presio jihadistaren artean.

Askatasuna eta demokraziaren defentsan, gure lehentasunak izan behar du musulman europarrak, gaurko judutarrak, babestea, atzoko judutarrei gertatu zitzaiena gerta ez dakien.

Nahiz eta arrazakeria laikoaren eta jihadismo erlijiosoaren presio bateratua jasan, arabiar zein musulman gehienak, European eta munduan, bakezaleak dira.



Musulmanak dira ere Estatu Islamikoaren
biktima gogokoenak
zein opositore zuzenak.



Arrazoi asko daude larrituta egoteko.
Kontuz emozio fuertekin. Eroak beti egon
izan dira, eta guztiaren izenean hil dute,
baita edozeren izenean ere.

Baina min handiagoa egin dezakete
zuhurrek eroen erokeria erabiliz —eta
pertsona on eta zentzudunen izua—
beren interesak babesteko, baita
zibilizazio iraultza berri bat eragiteko
prezioan ere.

Kontuz: islamismo jihadistaren txanpon beraren ifrentzua da islamofobia. Beren diskurtso esentzialistek berdin funtzionatzen dute, elkar elikatzen dute eta krimen beretara eramaten dute.

Lehena garaitu nahi badugu bigarrenaren kontra borrokatu behar dugu ere. Honek izan behar du helburu nagusia balore laiko, errepublikar eta ezkertiarrek serioski hartzen dituen edozein hiritarrentzat.

